



## LEA ARTIBAI AMANKOMUNAZGOA

Patrokua Jauregia – Xemeingo etorbidea, 13  
48270 MARKINA-XEMEIN  
Tf. 94 616 90 68 Faxa: 94 616 92 78  
Posta e.: mankomunitatea@lea-artibai.org

### **Administrari Prozedura. Atzera botatzeko epeak Alarma Egoeran**

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera onetsi zuenetik sortu den egoera berri honek Sektore Publiko osoak kudeatutako administrazio-prozedurei eragin die. Hori dela eta, esku artean izan eta kudeatzen ditugun administrazio-izapide elektronikoei ere eragin die neurri horrek.

Egoera honetan ahalik eta modurik eraginkorrean elkarlanean aritzeko, bi ekintza zehatz proposatzen ditugu, hala barne-kudeaketan nola kanpokoan:

- a. Barne-kudeaketan, bitarteko elektronikoen bidez administrazio-jakinazpenak atzera botatzeko epeak desaktibatu ditugu (39/2015 Legearen 43.2 artikuluan jasota), baina udal langileek administrazio-izapideetan lanean jarraitzen badute, hautatutako jakinarazpen elektronikoa hartzaile elektronikoei jakinaraziko zaizkie, eta ez zaizkie aplikagarriak izango jakinarazpenak atzera botatzeko epeak. Edozelan ere, erakundearen erantzukizuna izango da jakinarazte-izapidea egitea edo hori adierazitako Errege Dekretua indargabetzen den unera arte atzeratzea.  
Bestalde, beharrezkoa den antolaketa- edo instrukzio- neurri elektronikoren bat adostu eta jakinarazpenak eragina eduki dezan nahi baduzue, horren berri eman beharko diguzue, horren arabera jokatu dezagun.
- b. Kanpo-kudeaketan: webgunearen bitartez herritarrei bidali ahal dizkiezuen mezuez gain, Egoitza Elektronikoa mezu hau argitaratzea proposatzen dizuegu:

*“Zenbait administrazio-prozeduraren epeak bertan behera geratu dira, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua*

*aplikatuta.*

*Egoera honetan gauden bitartean, Udala egoeraren jakitun da, eta ez du aintzat hartuko epe administratiboa ez betetzea.*

*Uste baduzu beharrezkoa dela epea bertan behera utzi izana baliogabetzea zure eskubide edo interesetan kalte larriak saihesteko, jakinarazi iezaguzu berehala, horretarako gaitutako kanalen bitartez.*

*Eskertzen dugu egoera honetan herritarrek erakundeei erakutsitako lankidetzeta eta konfiantza.”*